

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

134/2021 Foru Agindua, urriaren 29koa. Hutsen zuzenketa onartzea uztailaren 29ko 110/2021 Foru Aginduan (abuztuaren 3ko 114/2021 Foru Aginduak aldatua), zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesua zuzendu behar duena administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikarien klasea, psikologoa

Akats bat antzeman da uztailaren 29ko 110/2021 Foru Aginduan (abuztuaren 3ko 114/2021 Foru Aginduak aldatua), zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesua zuzendu behar duena administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikarien klasea, psikologoa, eta dagokion zuzenketa egin behar da.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 109.2 artikuluan, honela dio: "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren egitura eta funtzionamendu arautegia onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuaren 11.b) artikulua xedatutakoarekin bat etorritik,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. II. eranskina zuzentzea, irakasgai komunak, uztailaren 29ko 110/2021 Foru Aginduan (abuztuaren 3ko 114/2021 Foru Aginduak aldatua), zeinaren bidez deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen diren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesua zuzendu behar duena administrazio bereziko eskalan, teknikarien azpieskala, goi mailako teknikarien klasea, psikologoa.

Hau dioen lekuan:

"8. Gaia: Arabako Biltzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa Funtzionalari eta Araubide Juridikoari buruzkoa (3., 4., 17., 18., 38., 39. artikulua) 4/2000 Foru Araua, otsailaren 21ekoa, Arabako Foru Aldundiko goi-karguen, haren erakunde autonomoen eta foru-sozietate publikoen eta Arabako Foru Aldundiko behin-behineko langileen araubidea arautzen duena (1-6 artikulua).

Beste hau esan behar du:

"8. Gaia: Arabako Biltzar Nagusiak eta Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioa (II). 52/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa Funtzionalari eta Araubide Juridikoari buruzkoa (3., 4., 17., 18., 38., 39. artikulua). 10/2018 Foru Araua, uztailaren 11koa, foru-kargu publikoen jarduna arautzen duena (1-8 artikulua)."

Bigarrena. Foru Agindu hau argitaratzea ALHAOn eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu publikoaren atarian (<http://www.araba.eus/ifbs/portalempleo/>).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 29a

Gizarte Politiken foru diputatua
EMILIO SOLA BALLOJERA

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ